

*Jolastu eta ikasi  
Elkanorekin*

# *Rio de Janeirorantz*



## *Jolastu eta ikasi Elkanorekin* *RIO DE JANEIRORANTZ*

Sevilla atzean utzi genuenean hasi zen gure bidaiak zekarkigun lehen proba handia: Atlantikoa gurutzatzea.

Tenerifan gelditu eta bertan sutako egurrez eta urez hornitu ondoren, gure 5 ontziek Afrika iparraldea inguratu eta mendebalderantz jo zuten, Brasilerantz. Ez zen bidaia erraza izan, ez horixe! 2 hilabetez jasan behar izan genituen ekaitz bortitzak, eta, orduan, belak erriatu eta ontziak pairuan utzi behar genituen, noraezean, hondoratzeko arriskua zegoelako bestela.

Hori dela eta, azaro osoan ez genuen ia aurrera egin.

Itsas bidaia luze horretan, lehen ika-mikak sortu ziren Magallaesen eta Juan de Cartagenaren artean, eta almirante portugaldarrak giltzapetu egin zuen, hainbat bider errespetua galdu ziolako. San Antonio ontzia orduan Antonio de Cocaren agindupean gelditu zen eta, beranduago, Magallaesen beraren lehengusua zen Álvaro de Mezquitaren esanetara.

Azkenik, Brasilgo kosta begiztatu genuen, San Agustin lurmuturra, hain zuzen. Akituta geunden, baina Portugalen eremua zenez, Magallaesek ez zigun lehorreratzin utzi, eta beste bi astez itxaron behar izan genuen lehorra zapaldu aurretik.



Dena den, merezi izan zuen itxaronaldia; izan ere, benetako paradisia topatu genuen, jende abegikorrez betea, indarberritzeko eta askotariko bizigaiz hornitzeko egokia. Haren izena: Santa Luzia badia, edo, gaur egun ezagutzen dugun moduan... Rio de Janeiro.

Behin ondo hornituta geundenean, gure bidaiari ekin genion berriz, hegoalderantz, Ozeano Barea-ekin lotuko zuen kanalen baten bila. Dena den, kanal hori topatzea ez zen lan erraza izango.